Arxu idazlearen mendeurrena ospatuz

Iragan ekainaren 27an, arratsaldez, bazen jenderik Mauleko hirikoetxean. Han eman bai zitzaion Arxu idazle zuberotarraren mendeurrena ospatze hasiera. Mauleko Jaun Meraren hitzekin eman zitzaien hitzaldieri sarrera.

Zuberoako "Sü Azia" batasunak deiturik eta Euskaltzaindiaren laguntzaz eratua zenez, elkarte hartako Francois Dascon jauna mintzatu zen lehenik, "Zuberoaren beharrak euskararen zaintzeko", zer ziren bertako egoera eta premiak. Azaldu ere, premia larriak azaldu zituen. Berrogeta bi herrik osatzen dute Zuberoa eta hamazortzi mila biztanle baizik ez ditu. Holetatik, Maule berak bost mila, eta guzietarik erdiak doi doi dira euskaldunak. Atharratzen, azken hamabost urteotan ehunetik hogeikoa gutitu da eta ustutze honek larritzen ditu "Sü Azia" batasunekoak.

Elkarte hau duela hiru urte sortua da euskararen suztatzeko eta bertako kultura jatorra gordetzeko. Beren ekintza: euskara eskoletara eroan, adinekoentzat alfabetatzeak eratu, eta horietarako behar diren tresnak gertatu, ahal den toki guzietara euskara eroanez. Eta, honen inguruan, historia eta etnografia erakatsi, bertako kultura ezagutzeko eta maitatzeko. Aitortu zuenez, Zuberoaren xedea oso beltza da. Bizibidea bai du nekez. Baina, euskaldungoa pizten ari omen da. Gazte berriek ari dira gaueskoletan lanean eta lantegi berriak sortzen.

"Sü Azia"koek Zuberoako izateari atxikirik bizi dira, ez dute herri baten izateari amor ematerik eta bertatik irten gabe jarraitu nahi dute.

Beren kezkak azaldu eta bukatzean euskaltzainei eta han ziren kanpotiarrei "hunki jina" agertuz bukatu zuen Dascon jaunak bere mintzaldia.

Ondotik L. Villasante euskaltzainburua mintzatu zen. Arxu zuberotar idazlearen mendeurrena ospatzeko deiagatik eta euskararen alde egiten ari diren lanagatik eskerrak emanaz, "Sü Azia zuek zerate, su berria pizteko" eta zuengan dago Zuberoaren etorkizuna, esan zien.

Segidan, Junes Casenave jauna mintzatu zen: "Jusef Egiategiz". Pariseko gordailu batean aurkitu dira idazle ezezagun honen eskuezkribuzko b idazki edo libru. XVIII. mendearen erdialdean bizi omen zen Josef Egiategi. Argien mende hartako gaiak erabiltzen ditu bere euskarazko lan horietan, filosofia, kondaira, errefraualk eta abar. Beretan ageri denez, ezagunak omen zituen lehenagoko euskal idazleak, baina baita ere Europako filosofoak.

Egiategi, sorlekuz, oraindik ez dakigu deusik, baina uste da Zuberoako Petarra partekoa zela eta ez baxenafartarra.

Berak uste omen zuen euskara ama-hizkuntza zela eta lehenago Espainia guzian erabilia zela. Bestalde, Oihenartek bezela uste zuen Ifar Euskal Herriko euskara Espainia partetik joana zela. Orain, holako usteak baztertu dituzte eta Alliéres jaunak argi edierazia du Gaskoinen aintzinako mintzaira ere euskara zela.

J. Casenave jaunak, mintzaldia bukatzea, Txomin peillen eskertu zuen Egiategiren lanak aurkitu eta horietaz egin zizkion oharregatik.

Jean Louis Davant euskaltzain jaunak jarraitu zion ondotik, "Arxuz geroztikako idazleak Zuberoan" gaiari lotuz. Bai hilak eta bai biziak aipatu zituen, nor nongoa zen eta zertaz idatzi zuen adieraziz, beretako bakoitzaren lanen joeraz ere agertuz.

Bukatzeko, euskaltzainburuorde den J. Haritschelhar jauna mintzo zen, "Euskaltzaindiak zer egin ahal duen Zuberoaren laguntzeko". Zenbait asmoren artean Zuberoako herriak euskal literaturari eman diona goraipatu zuen. Anitz emana baita Bereterretxe khantoriaren denboraren joana lekuko. Bestalde, gauza bereziak direla Zuberoak sortu eta iraunaraziak: Pasturalak eta maskaradak. Pasturalak, lehen lehenago, erligio borrokak erabiltzen zituzten beren gairik gehienetan eta orain Zuberoako historia dutela gaitzat, bere bizitza agerreraziz. Beraz, pasturalak berritu dira eta hori dute xuberotarrek beren literaturaren aberastasuna.

Euskararen batasuna ere aipatu zuen. Batasuna beharrezkoa baita eskolak eta Unibertsitatea euskaraz axolaturik datorren garai honetan. Hartua den abiada honek ekarriko duen lasterra itxaropentsua omen. Euskara bat da, euskaldunok anaiagotzen gaituena eta behar dugula elkarrekin lan egin. Muga batek ebakitzen gaitu, baina euskara bat da eta mugarik gabea.

Biharamunean, igandez, Altzürükün, Arxuren sorterrian, jaialdiekin ospatu zen. Hermezaren ondorean, hilerrian Eppherre (Gilen eta Gregorio) idazle eta euskaltzaindiko zirenen holobian otoitza. Gero, gaztelu aintzineko plazan dantzariak. Han bertan, André Lechardoy erakaslea mintzatu zen J.B. Arxu idazlea nor zen eta bere lanak zer ziren adieraziz. Bere alabattoak Arxuk La Fontaine-gantik itzulitako alegietarik bat irakurri zuen.

Handik hurbil, herriko eskolen ondoan, Arxu zenari oroitarria agertzean Queheille Jaun Mera mintzatu zen han ginen guziok agurtuz eta oroitarria agertuz. Non ikurtzen den:

J.B. Archu
Altzuruku 1811 – 1881 La Reole
Aleghiak
Kantu patriotikak
gramatika
Ruth

Zuberoako dantzak agertu ziren berriz ere eta hauen ondotik Sartantxü eta Mirandek kantatu zuten.

Anaiarteko bazkari batekin bukatu zen Altzürükün jaialdia. Bertan, kantati hoiez gainera bazen besterik ere, Jean Michel Bedaxagar pasturalgile gaztea eta Etxeberriako Eppherre. Kanta zoragarrien artean, maiz agertzen zen berri bat ere, tarteka errepikatuz:

Bizi nahian gera
gure Xuberuan!

Juan SAN MARTIN

Los días 27 y 28 de junio, convocados por la entidad suletina "Sü Azia", con la colaboración de la Real Academia de la Lengua Vasca – Euskaltzaindia, se celebraron en Zuberoa los actos de homenaje al escritor Juan Bautista Archu, con motivo del centenario de su fallecimiento. Archu, maestro e inspector de escuelas en La Réole (Gironde) era un escritor que trabajó con entusiasmo en vertir las obras de autores vascos como Detchepare y Oihenart al francés, y a la reciproca, las fábulas de La Fontainę al vascuence; traductor y autor de canciones patrióticas de la Revolución francesa, compuso una gramática del euskara y francés para el uso de las escuelas, fue colaborador de Fr. Michel y el príncipe L.L. Bonaparte y a requerimiento de estos recopiló canciones populares y vertió al vascuence algunas partes de la Biblia. Motivos por los que se congregaron personalidades de la cultura vasca, de ambas partes de la frontera, y un público muy numeroso en Mauleón, capital de Zuberoa, y su pueblo natal de Aussurucq.

El primer día, sábado por la tarde, en el ayuntamiento de Mauleón, comenzaron los actos con la salutación del alcalde de aquella localidad. Por su parte, el señor Dascon, directivo de "Sü Azia", en breve disertación dio cuenta del estado actual de la lengua y cultura autóctona de Zuberoa. Acto seguido le correspondió el señor Villasante, presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, con palabras de agradecimiento.

Seguidamente intervino el académico correspondiente Junes Casenave, quien expuso detalladamente el hallazgo y contenido de dos obras inéditas descubiertas en un archivo de París, del escritor Eguiategui de mediados del Siglo XVIII, con una temática común al movimiento de la Ilustración: Filosofía, Ciencia, Historia, etc., en los que el autor demuestra sus conocimientos sobre las materias, que además de las obras de los escritores que le precedieron en vascuence conocía las de los filósofos europeos de la época. Terminó agradeciendo a su colega Dominique Peillen el importante descubrimiento, así como las observaciones hechas sobre dichos manuscritos.

El académico Jean Louis Davant reseñó, en una exposición general, los escritores suletinos desde Archu hasta nuestros días, señalando los géneros desarrollados, las obras y particularidades de cada uno.

Cerró aquel primer acto cultural el vicepresidente de Euskaltzaindia, profesor de la Universidad de Burdeos y director del Museo Vasco de Bayona, don Jean Haritschelhar, explicando el proceso de transformación producido en la tradición de las Pastorales (teatro popular suletino), sus posibilidades cara al futuro y sobre la labor a desempeñar en la recuperación socio-lingüística de Zuberoa con la cooperación de la asociación "Sü Azia".

El domingo, en el encantador pueblo de Aussurucq (Altzürükü), tras una misa concelebrada en el bello templo de típica arquitectura suletina de transición gótico-renacentista, con magnífica espadaña tridentada (por las que se les llama iglesias trinitarias), y con retablo barroco y conjunto interior ornamental con pintura que le realza en viveza, en ese precioso marco, los visitantes tuvieron buena ocasión para escuchar cómo canta el pueblo de Zuberoa. A continuación hubo un responso ante la tumba de los hermanos Eppherre, que en vida fueron escritores y miembros de Euskaltzaindia.

Hubo otro acto público frente a la plaza del viejo castillo, donde el profesor André Lechardoy ensalzó la vida y obra de Archu. Y, a continuación, el alcalde de la localidad descubrió una plaza conmemorativa junto a las escuelas, que guarda el recuerdo del escritor suletino. En ese momento intervinieron grupos de danzas y cantantes suletinos. Una comida de hermandad y las diversas intervenciones de cantos individuales, dúos y coros fueron el colofón de los actos conmemorativos en homenaje a Juan Bautista Archu.

Donostiako kontserbatorioa

Ospe handia hartu du egunotan Donostiako Kontserbatorioak, Abendudanik Euskalerrian goi mailako ikastetxe bakarra baita. Beharrezkoa zen benetan, Baionakoa aparte utzirik, hegoaldeko hiriburuetan dauden lau Kontserbatorioetatik batek, gutienez, goi mailako baimena lortzea, bestela euskal musika ikasleek, beren estudiook bukatzeko, atzerriko Kontserbatorioetara joan beharrean aurkitzen ziren eta. Musika alorrean hain aberats eta ugaria zen herriak, herriko semeen heziketa osatzeko ezeukan beste biderik Madridera edo Barcelonara edo Parisera jotea baizik. Orain etxean geratzen zaigu etzekoen heziketa eta posible izango da, Euskal Unibertsitatearen oinarri bat jarriz, euskaldunentzat euskal musikaren planifikazio bat egiteko, guk geure arazoetan inoiz agintzen badugu behintzat.

Eta beharrezkoa zen ez ikaslegoaren aldetik bakarrik, baizik eta irakaslegoari begira ere. Hauentzat irakaskuntzaren bideak eta irtenbideak moztuak zeuden eta, sarri askotan, ikasleakbezalaxe, kanpoko Kontserbatorioetara jo beharrean aurkitzen ziren ogia irabasteko edo zekien guztia irakasteko. Asko dira gure musikaren historian zehar Parisen edo Madriden, esate baterako, musika katedrak erabili dituztenak, eta berton musika eremua mugatua zenez gero, aitzerrian jakituria garatu behar izan dutenek. Zoriontsuak gara bada ez Donostian bakarrik, Euskalerri osoarentzat aurrerapen txalogarria baita.

Kontserbatorio hitza erabili dut eta, ene ustez, erabili beharko dudan hitza da. Hitz honekin Napolesen sortu zen lehendabiziko etxea 1537an. Umezurtzak biltzen zituen babesetxeak hartzen zuen izen hau orduan; baina musika irakasten zenez, Kontserbatorio izena hartu zuten geroztik musika ikastetxeek. Hala sortu ziren Europan zehar Kontserbatorioak: Palermo (1615), Paris (1784), Milan (1807), Praga (1811), Bruselas (1813), Viena (1817), Londres (1822), La Haya (1826), Madrid (1830), Lisboa (1836), Barcelona (1838), Moscou (1864), eta beste. Parka, irakurleok, baina zerrenda luze hori eman badut zeruagatik izan da: musika ikastetxe orok Kontserbatorio izena daramatelako. Hitz hau ondo finkatua geratu da gure mendebaleko kulturan gauza konkreto bat adierazteko: musika irakasteko erakunde eta tokia. Goazen bada berriz harira, hots, Donostiako Kontserbatoriora.

Musika irakaskuntza nolakoa izan den Donostian ikusiko dugu' adiskide? Ez naiz urrunera abiatuko. Azken laurogei eta bost urteko historia aztertuko dugu, hau da 1896ean hastia: Azaroaren 15an Donostiako Artederren Elkarteak Musika Batzordeñoa sortu zuen bere barnean, batzarkideak Camio, Moyua, Guimon, Zuaznabar eta Soraluze jaunak hautatuz. Hasierako eginkizunen artean musika korala zen,dirudienez, kezka gehien sortzen zuena eta Juan Guimon jauna izendatu zuten Donostiako Koral Elkartea zuzentzeko. Eta urrengo urteko Ekainaren 16.eko bileran Mariano Zuaznabar Arraskaeta izan zen Abesbatzen Begirale izendatua.

Ikastaro berria hasi orduko, 1897ko Irailaren 17an, Musika Batzordeak Akademia bat sortu zuen eta Alfredo La Rocha izendatu zuen zuzendaritzarako. Eta Akademia honen lehen ikastaroa amaitzerakoan azaltzen zaigu agirietan musiku ospetsu baten aipamena: Jose Bustinduik bilbolineko hirugarren kursoa bukatzen du. Bikain kalifikazioa eman zioten epaimahaikoak Lope Alaña, bilbotarra, eta Jose Antonio Santesteban. Alfredo La Rocha eta Mariano Zuaznabar donostiarrak izan ziren.

Arrakasta handia lortzen zihoan Donostiako Musika Akademia eta 1898-1899 ikastaroa prestatzeko beharrezkoa zen hutsune batzu betetzea irakaslegoa osatzeko. 1898.eko Uztailaren 7an bilera bat eratu zuten batzordekoek eta, La Rocha jaunaren proposamena onartu ondoren, batu hauetan [illegible] mania [illegible] rria: Sagarna [illegible] eta German [illegible] batzu [illegible] rria.

Hogeigarren [illegible] gaude. Eta [illegible] tzako landa [illegible] Hurrengo [illegible] toriatzu [illegible] rria baita [illegible] ren urratsak [illegible]

Juan Antonio [illegible]

Durante los [illegible] cido extensa [illegible] vatorio Superior [illegible] Sebastián que [illegible] ciembre de 1[illegible] más alto grado [illegible] música. El Pa[illegible] en sus capaz[illegible] grado superior [illegible] que en adelante [illegible] diantes de [illegible] salir a centros [illegible] nar sus diversas [illegible] bién habrán de [illegible] profesores de [illegible] lante tendrán [illegible] trar su capacid[illegible]

La palabra [illegible] acuñó en Italia [illegible] asilos de huérfanos [illegible] truía en la dis[illegible] mino fue acep[illegible] cultura occide[illegible] han sido llamados [illegible] de enseñanza [illegible] primero que se [illegible] 1537. Creo que [illegible] tar la denomina[illegible] para significar en [illegible] igual nombre en [illegible] idiomas europeos.

Con ese [illegible] dedicada a la [illegible] fianza oficial de [illegible] Sebastián en [illegible] desde que en [illegible] Bellas Artes [illegible] res, Camio, Mo[illegible] nabar y Soraluze [illegible] bar es nombrado [illegible] y Alfredo La R[illegible] fesor de la Acade[illegible]

Se encar[illegible] a la p[illegible] de Ba[illegible]

Trabaj[illegible] de "A[illegible] clamor[illegible] la emp[illegible]

SAN SEBAST[illegible] tuvo lugar [illegible] comité de em[illegible] presidente del [illegible] tración, Antonio [illegible] quien la acep[illegible] miembro del [illegible] Echeverría, en [illegible] ción para el p[illegible] la no puesta en [illegible] viabilidad de la [illegible] estar elaborada [illegible] en vigor, lo que [illegible] dores, pone de [illegible] de trabajo.

Como muestra [illegible] trabajadores de [illegible] goiharr viernes [illegible] movilizaciones [illegible] ron un paro de [illegible] comunicado [illegible] les de Guipúzcoa [illegible] bar y el viernes [illegible] bajadores ocupa[illegible] espacio de un [illegible] encarnación [illegible] cursal bancaria [illegible] en la Avenida [illegible] Sebastián, con [illegible] rio sus respec[illegible] secretario de A[illegible]